

HAUR HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



III. MODULOA “KOMUNIKAZIO LANABESAK” MODULUA

2024/2025 ikasturtea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

HEFA-II ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. KONPETENTZIAK	4
3. TALDEEN EGITURA.....	6
4. LAN GIDATUA.....	7
4.1. LAN IDATZIAREN ATALAK.....	7
4.1.1. Azala:.....	7
4.1.2. Aurkibidea:	7
4.1.3. Sarrera:	7
4.1.4. Egitekoen banaketa	7
4.1.5. Atal teorikoa:	7
4.1.6. Behaketaren emaitzak:.....	9
4.1.7. Behaketaren talde ondorioak eta gogoeta	9
• Azken gogoeta.....	9
4.1.9. Eranskinak:	9
4.2. LANAREN URRATSAK eta EMANGARRIAK.....	10
4.2.1. LANAREN URRATSAK	10
2.1. Tutorearen iritzia.....	10
2.2. Haur baten behaketa.....	10
2.3. Ikaskide bakoitzaren behaketen elkar jartzea.....	11
3. Urratsa: Behaketaren talde ondorioak eta gogoeta.....	11
4.2.2. EMANGARRIAK:	11
Lehen emangarria:	11
Azken emangarria:	11
4.3. LANA BURUTZEKO MATERIALAK ETA EMANGARRIAK	12
5. AURKEZPENAK	12
6. KRONOGRAMA	13
7. EBALUAZIOA.....	14
7.1. EBALUAZIO OINARRIAK.....	14
7.2. EBALUAZIO ERRUBRIKAK	14
7.3. LANA GAINDITZEKO GUTXIENENKOAK.....	19
8. ERANSKINAK.....	20
1. Eranskina: Haurra behatzeko taldekide bakoitzak erabilitako tresna, lortutako emaitzekin	21

2. Eranskina: Aurkezpena prestatzeko kasua	22
3. Eranskina: Talde lanaren ebaluazio errubrika	23
4. Eranskina: Moduluko lana ebaluatzeko galderak.....	26
5. Eranskina: Ikastetxeetan behaketa egiteko baimenak	27

1. SARRERA

Gida honen bidez, Haur Hezkuntzako 2. mailako lehen seihilekoan burutu behar den modulu lana aurkezten da. Lan hau Haur Hezkuntzako Graduan burutuko diren 5 modulu lanen artean hirugarrena da, eta “Komunikazio Lanabesak” du izena. Lehen seihilekoan dauden ikasgai guztiek osatzen dute modulu lan hau: Haurtzaroren Psikologia, Komunikazio Gaitasunaren Garapena –Euskara eta Gaztelania– Haur Hezkuntzan-II, Ikastetxearen Antolakuntza eta Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan. Lanaren helburua da Haur Hezkuntzan jolasaren inguruko behaketa eta gogoeta bideratzea. Ondorengo lerroetan jasotzen dira hori burutzeko beharrezko orientabideak.

Moduluan parte hartuko duten irakasleak:

- Komunikazio Gaitasunaren Garapena –Euskara eta Gaztelania– Haur Hezkuntzan- II: Ana Gandara Sorarrain
- Haurtzaroren Psikologia: Barbara Presa
- Ikastetxearen Antolakuntza: zehazteke, Naia Intxausti
- Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan: Marta Sarasa Modulu

koordinatzailea: **Ana Gandara Sorarrain** (behin-behinekoa)

2. KONPETENTZIAK

Moduluan lantzen diren Haur Hezkuntza Graduko konpetentzia orokorrak:

G001	Haur Hezkuntzaren helburuak, curriculum-edukiak eta ebaluaketa- irizpideak ezagutzea, horien berezitasun epistemologikoa eta horien didaktikaren berariazkotasuna ulertuz, baita diziplinen arteko harremana ere, neska-mutilen lana prestatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko.
G003	Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua.

G006	<p>Lehen haurtzaroan hizkuntzaren bilakaera ezagutzea, egon litezkeen disfuntzioak identifikatzen jakitea eta horiek egoki garatu daitezela zaintzea. Kultura anitzeko eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan hizkuntzak ikasteko egoerak eraginkortasunez aztertzea. Ahoz nahiz idatziz espresatzea eta espresatzeko teknika desberdinen erabilpena menderatzea. Euskara eta gaztelania eta, gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna frogatuz –C1 eta B1 mailak, hurrenez hurren– bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza- testuinguru batean gauzatu ahal izateko, baina betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.</p>
G007	<p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta, bereziki, telebistak lehen haurtzaroan dituzten hezkuntza-ondorioak ezagutzea. Informaziorako eta komunikaziorako hedabide desberdinak modu kritikoan erabiltzea (IKTak, liburutegiak, fonotekak...), ezagutza-iturriak eskuratu ahal izateko eta komunikazio-lanak, ikaskuntza, ikerketa eta lankidetzaz bidezko lana sustatzeko.</p>
G011	<p>Maila honetako irakasle guztiak jarduerak elkarlanean planifikatzea. Irakaskuntza-lana eta jarduera profesionala berritzeko eta hobetzeko ikasgelan egiten diren praktiken inguruan taldean gogoeta egitea. Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzazkorako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.</p>
G012	<p>Haur-hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarrizko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har, hezkuntza- prozesuen konplexutasuna eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena ulertzea, eta curriculum- elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun eman ahal izango diena. Kalitatea hobetzearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.</p>
G013	<p>Ikerketatik abiatuta hezkuntzak dituen kontzepzioak aztertzea eta balioestea, baita Hezkuntza Administrazioaren curriculum- proposamenak ere, hezkuntza-proiektuak eta programazio-unitateak diseinatu eta garatzeko, curriculum testuinguru soziokultural aldakorretara egokitzea ahalbidetuko baitu horrek.</p>
G014	<p>Epealdi honetan neska-mutilen garapen emozionala, soziala eta kognitiboa eta nortasuna ezagutzeko eta sustatzeko gaitasuna izatea.</p>
G015	<p>Komunikazio-kompetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenekoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan.</p>

Modulu lanaren kompetentziak eta Haur Hezkuntza Graduko kompetentziekin duten lotura:

1. Taldean jolasari buruzko informazioa bilatu, iturri fidagarri eta anitzetan oinarrituz (liburuak, aldizkari akademikoak, web orriak). (G007)
2. Atal teorikoan oinarrituz, haurren jolasari buruzko behaketaren deskribapena eta analisi zehatza burutzea diziplinartekotasuna kontuan izanik. (G001, G003, G012, G013)
3. Jolasek haurren hezkuntzan eta garapenean duten garrantzia ezagutzea nahiz balioestea, eta taldean hobekuntzak proposatzea, eremu teorikotik eta behaketetatik jasotako irizpideen arabera. (G012, G013, G014)
4. Lan prozesuan taldearen funtzionamendua arduraz kudeatzea (talde lana planifikatu, egin beharreko lanak osatu eta epean entregatu, lanaren aurkezpenetan kide guztiek parte hartu, talde lanaren errubrika bete, eta abar). (G011)
5. Jolasei buruzko diziplinarteko idazlanak aurreikuspenez planifikatzea (lanaren zirriborroak) eta azken txostena egitea testuaren zuzentasuna, egokitasuna, antolaketa eta APA arauen irizpideak kontuan izanik. (G006, G011, G015)
6. Haur Hezkuntzan jolasaren baldintza aproposak sustatzeko proposamenegokiak sormenez adieraztea. (G011, G015)

3. TALDEEN EGITURA

Ikasleek taldeak osatu beharko dituzte, taldeen ezaugarriak ondorengoak izango direlarik:

- Taldekideen kopurua 4-5ekoa izango da.
- Taldekideek talde-fitxa bete beharko dute irailaren 13rako. Moduluko koordinatzaileari entregatuko diote. Talde bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Taldekideak konprometitzen dira talde lanetan modu aktiboan parte hartzen.

Oharra: seihileko honetan ikasgai bakar batean matrikulatua egonez gero, ez da derrigorrezkoa izango moduluko lana egitea. Haurtzaroaren Psikologia irakasgaia baliozkotua dutenek moduluan parte hartu beharko dute. Horrez gain, talde bakoitzean ezin izango dira Haurtzaroaren Psikologia baliozkotua duten bi pertsona baino gehiago egon.

4. LAN GIDATUA

! OHARRA: Goi Mailako Ziklotik heldu diren eta Practicum Ia baliozkotua duten ikasleek ezinen dute ikastetxeetara hurbildu behaketa lana egitera. Hori dela eta, bi aukera izanen dituzte:

1. Aukera: aukera hau hobetsiko da. Inguruan duten haur baten behaketa eginen dute testuinguru desberdinetan: kalean, parkean, etxean... Horretarako, familiaren baimen informatua eskuratu beharko dute ikasleek.
2. Aukera: inguruan haur baten behaketa egiterik ez duten ikasleek, behaketarik egin ezin eta emaitzarik lortzerik ez dutenez, konpentsatu beharko dute lan guzti hori. Horretarako:
 - a. Lanean zehaztu eginen da, “4.1.4. Egitekoen banaketa” atalean, zein izan den taldekide bakoitzaren egitekoa lanean.
 - b. Espresuki zehatza izan beharko da behaketarik egin ez duen (dagokion kasuan) ikaslearen egitekoa modulu lanean: zer egin du, noiz, nola...
 - c. Egin kontu kideen behaketa taulak irakurtzen eta emaitzak irakurri nahiz ondorioak ateratzen parte hartu behar duela, ezinbestean. Horrez gaineko lanak ere zehaztu beharko dira, behaketarik egin ez duen ikasle(ar)en kasuan.

Moduluko lanaren emaitzak ondorengoak izango dira:

4.1. LAN IDATZIAREN ATALAK

4.1.1. Azala:

Lanaren izenburua. Azalak lanaren berri emango du eta irakurlearen grina piztuko du. Irudia ere lanaren berri eman behar du (kontuz estereotipoekin).

4.1.2. Aurkibidea:

Lanaren atal nagusiak bilduko ditu, eranskinak barne.

4.1.3. Sarrera:

Taldearen aurkezpena, zein ikastetxetan egin diren behaketak eta ikastetxe horietan erabiltzen duten metodologia orokorra (adibidez: Amara Berri, mugimendu autonomia, proiektu bidezko metodologia...). Gainera, lanaren ardatz den gaia ere aurkeztuko da, paragrafo batean.

4.1.4. Egitekoen banaketa

4.1.5. Atal teorikoa:

Laburra izango da (gehienez 7 orrialdekoa). Ondorengo informazioa bildu beharko du:

- Jolasaren definizioa, ezaugarriak eta funtzioak.

- Jolasen sailkapena: a) jolasen sailkapena garapen aldiaren arabera; b) jolasen sailkapena helduaren partaidetzaren arabera (jolas librea eta gidatua).
- Hezitzailearen rola eta komunikazioa jolasean:
 - Hezitzailearen rola jolas librean eta jolas gidatuan.
 - Hezitzailearen komunikazio gaitasunak hurrekin: zer nolako parte hartzea izan behar duen, adibidez, partehartzaile aktiboa baino ez behatzailea, behatzaile aktiboa edo behatzailea parte hartu gabe, komunikazio arrakastatsua izateko (hitz egitekoa eta gorputzarena) zer nolako irizpideak jarraitu behar diren, adinari egokiturik.
- Jolaserako espazio eta materialak: garapen aldiari begira eta jolasaren sailkapenak kontutan harturik, nola antolatu behar da jolasteko espazioa (barnekoa eta kanpoko)? Zer materiala eskaini daitezke irakasleak garatu nahi dituen gaitasunak gara ditzaten aniztasuna kontuan izanik (gaitasun, genero, kultura edo klaseari dagokionean adibidez, ikaskuntzarako diseinu unibertsala kontuan izanik)?

- Hezkuntza laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten pertsonak jolasean (jolasteko eskubidea, diseinu unibertsalaren garrantzia, jolasteko aukera, HLBP duen ikasle bat behatuz gero, premia horri buruzko aipamen zehatza).

4.1.6. Behaketaren emaitzak:

Taldekide bakoitzak haur baten jolasa behatuko du. Banaka egin beharrekoa izango da. Norberak bere praktikaldian gauzatuko du, ondorengo urratsak jarraituz:

- Tutorearen iritzia
- Haur baten behaketa
- Ikaskide bakoitzaren behaketen elkar jartzea: emaitza guztiak kontuan izanik, atal nagusikako irakurketa egin

4.1.7. Behaketaren talde ondorioak eta gogoeta

- **Ondorioak:** emaitza nagusiak oinarri teorikoekin erkatu eta komentatu, lotura eginez. Kontuan izatekoak: bat al datoz zuek ikusi duzuen eta oinarri teorikoetan bildu dituzuenak? Ikusitakoa, eta alderdi teorikoan bildutakoak kontuan izanda, egin al dezakezue hobekuntza proposamen egingaririk? Nola deskribatuko zenuket zuek eskoletan jolasa lantzeko modua eta haren presentzia? Egin kontu ez dugula epaiketarik egin nahi, begirada kritikoz behatu baizik.
- **Azken gogoeta**

4.1.8. Erreferentziak:

- Lanean zehar aipatu diren autoreen erreferentziak txertatuko dira, 7. APAko arauak jarraituz. Modulurako derrigorrezko materialaz gain, gutxienezbeste 6 iturri eguneratu kontsultatu beharko dira.
- Iturrien hautapena tentuz egingo da, kalitatea eta zorrotasun zientifikoa bilatuko direlarik. Horretarako, bilaketa gune egokiak erabiliko dira (Google Scholar, dialnet, kasu) eta artikulua edota liburuek izandako aipu kopurua ere kalitate-zorrotasun adierazle izan litezke.

4.1.9. Eranskinak:

Gutxienez ondorengo hiru eranskinak gehituko dira:

- Haurra behatzeko taldekide bakoitzak erabilitako tresna, lortutako emaitzekin (1. Eranskina).
- Aurkezpena prestatzeko kasua (2. Eranskina)
- Talde lanaren ebaluazio errubrika betea (3. Eranskina).
- Moduluko lana ebaluatzen galderen erantzunak (4. Eranskina).
- Ikastetxeetan behaketa egiteko baimenak (5. Eranskina).

4.2. LANAREN URRATSAK eta EMANGARRIAK

4.2.1. LANAREN URRATSAK

1. Urratsa: **alderdi teorikoa osatzea**

Egelan jarri dizkizuegun materialak aintzat hartuta (4.3. puntuan duzue zerrenda) eta gutxienez 6 iturri berri bilatuta, 4.1. puntuan teoria atalean jasotzen diren puntuak garatuko dituzue. Puntu bakoitzerako eskaini zaizkizuen testuetatik informazioa jaso eta era argian idatziko duzue.

2. Urratsa: **jolasa behatzea**

Taldekide bakoitzak haur baten **jolasa behatuko** du. Banaka egin beharrekoa izango da. Norberak bere praktikaldian gauzatuko du eta behaketa egiten hasteko oinarritzko irakurgaiak irakurrita izan behar dira.

Ondorengo urratsak jarraituko dira (praktikaldia ez duzuenok aste beteko behaketa egin beharko duzue eskola batean):

2.1. *Tutorearen iritzia*

Praktikaldiaren 1. eta 2. asteetan zehar, ikasleak praktketan dagoen eskolako tutoreari galdetuko dio jolasari buruz, ondorengo informazioa jasoz:

- Zer den jolasa; zein jolas motaren alde egiten duten (gidatua/librea) eta zergatik; jolasak dituen onurak haurrentzat; eskolako jolaserako baldintzak egokitzat jotzen dituen (denbora, materiala, espazioa, formakuntza edota tutoreak jolasari dagokionez garrantzizko deritzon bestelako zeinahi alderdi).

2.2. *Haur baten behaketa*

Behatuko den haur bat aukeratu beti ere tutorearekin adostuta. Horretarako:

- Haur horren behaketak egingo diren uneak erabaki (haurra gelan eta jolastokian behatu beharko da).
- Praktikaldiaren 3. astetik aurrera aste bat aukeratuko da haurra eta bere jolasean eragina duten baldintzak behatzeko, une eta leku desberdinetan. Behaketa egiteko ondorengo kontuan izan behar da:
 - Aukeratu den haurra bost egunetan behatu behar da. Egun bakoitzean 1. Eranskineko behaketa tresnaren arlo bat behatuko da.
 - Behaketa egiteko tresna 1. Eranskinean dago eskuragarri.
 - Behaketa tresna erabili ahal izateko, ikasgelako tutoreari agertuko zaio Practicum Iari dagokion behaketa aktiboaren

barne behatuko direla haurren jolasa eta haren baldintzak.

2.3. *Ikaskide bakoitzaren behaketen elkar jartzea*

Lan hori guztia banaka egin ostean, taldeko ikasle guztiek ikastetxe bakoitzean jasotako datuak, tutorearen iritzia eta bost azpiatale dagozkienak (hezitzailea eta pertsonarteko komunikazioa, haurra eta jolasa, espazioa eta materialak eta Hezkuntza laguntzako berariazko premiak), beren artean konparatuko dituzte.

3. Urratsa: **Behaketaren talde ondorioak eta gogoeta**

- Ondorioak: behaketa tresnaren azpiatal bakoitzean lortutako emaitzak atal teorikoan landutako autoreek idatzitakoarekin edota autore berriek esandakoarekin alderatu eta, oro har, hobekuntza proposamenak aipatuko dira.
- Azken gogoeta: talde-hausnarketa (moduluko lan hau egitean ezer berria ikasi den, lana egiteko topatu diren erraztasun eta zailtasunak, lanaren erabilgarritasuna, eta abar).

4.2.2. **EMANGARRIAK:**

Ikasle taldeek bi emangarri eman beharko dituzte, kronogramaren atalean adierazten den datarako.

Lehen emangarria:

- Lehen emangarrian ondorengoa aurkeztuko die ikasle talde bakoitzak esleitutako moduluko tutoreei: **lanaren atal teorikoaren** zirriborroa eta hori idazteko erabili diren dokumentuen erreferentziak.
- Lehen emangarria zuzendu ostean, tutoreek emailez *feedback*-a bidaliko diete taldeei. Nahi izanez gero, taldeak bilera bat eskatuko du eta lana errebisatu eta zalantzak argitu eta gainbegiratuko dira.
- Modulua egiteko uzten diren klase orduetan irakasleek talde aurkezpenak nola egin azalduko dute.

Azken emangarria:

- **Idatzizko lan osoa** izango da, azken bertsioa eta eskatutako atal guztiak biltzen dituena.
- Paperean 2 kopia entregatu beharko dira (zuri beltzean eta graparekin). Letra mota, Times; tamaina, 11koa; paragrafo-arte, berriz, 1.5 lerroartekoa. Marjinak justifikatuak egongo dira. Lanaren luzera 15 orrialde ingurukoa izango da, eranskinak eta erreferentziak kontuan izan gabe.

4.3. LANA BURUTZEKO MATERIALAK ETA EMANGARRIAK

Lana burutzeko, besteak beste, ondorengo derrigorrezko materialak erabilikodira. Honetaz gain, esan bezala, 6 erreferentzia gehiago jasoko dira:

- AIJU (d.g). *Juego y Discapacidad*. <https://www.guiaaiju.com/juego-y-discapacidad/>
- Alba, C. (2019). Diseño Universal para el Aprendizaje: un modelo teórico-práctico. *Participación Educativa*, 9, 55-66.
- Caurcel, M. J. (2010). Contextos de desarrollo y juego en la edad infantil. Honetan A. Muñoz (Koord.), *Psicología del desarrollo en la edad infantil* (165-197. or.). Pirámide.
- Chokler, M. (2005). Cómo se juega el niño cuando juega. Honetan A. Fresquet eta M. L. Porcar (Eds), *Deconstruir, reconstruir* (97-104. or.). EFE.
- Delval, J. (2004). El juego. Honetan J. Delval (Ed.), *El desarrollo humano* (283-308. or.) (6. arg.). Siglo XXI.
- Fevas (2018). *Irisgarritasun kognitiboa. Egin bat erronkarekin*. Once.
- Marasca, R.; Herrero, M. I.; Curti, J., Nanzer, C. eta Faas, A. (2017). Evolución del juego infantil. Honetan A. Faas (Koord.), *Psicología del desarrollo* (267-273. or.). Brujas.
- Serra-García, A. (2020). Cómo afecta el tipo de patio al juego y a las relaciones entre iguales. Honetan Freire, H. (Koord.), *Patios vivos*. (25-3. or.). Octaedro.
- Tardos, A. (2011). *El adulto y el juego del niño*. Octaedro.
- Tonucci, F. (2016). *Con ojos de maestro*. <https://www.youtube.com/watch?v=hxbZLeaF7OI>
- Woodhead, M., Oates, J., Grupo de Estudios sobre el niño y el joven, La Universidad Abierta eta Keynes, M. (2013). *La primera infancia en perspectiva 9: El derecho al juego*. La Universidad Abierta.

5. AURKEZPENAK

- Aurkezpenetarako talde praktikoko bakoitza (bai GA1 eta baita GA2 ere) bitan banatuko da.
- 2. eranskinean duzue aurkezpena egiteko agertokia. Egin beharreko aurkezpena libre izango da; alabaina, ondorengo ideia batzuk lagungarriak izan dakizkizueke:
 - Lehenengo eta behin, Interneten begira dezakezue ideia originalen bila. Hauek abiapuntua izan daitezke eta gero zuek zuen erara moldatzen joango zarete edota ideiak gehitzen, asmatzen... Edozein eratarara egin dezakezue, beti ere, fokua mantenduz, lanaren muina agerian uzteko asmotan. Hau da, sormena eskatzen da, baino mezua koherentea eta jasoa izan behar dela ez ahaztu!
 - Sormenaz ari garela, aukera desberdinak daude. Jarraian, adibide batzuk –hala ere, zuek beste bide batzuk aurkituko dituzuelakoan gaude–: aurkezpena historia bat bihurtu dezakezue, edota galdera garrantzitsuak, ez ohikoak, espero ez direnak planteatu zuen publikoari... Umorea ere erabil dezakezue

(ikerketak dio ikasleak irakasle hoberenak gogoratzen dituztenean, hauen umorea aipatzen dutela). Adibideak, metaforak, musika ere oso boteretsua izan daiteke...

- Aurkezpenaren hasiera eta bukaera zaindu! Ikusleriaren atentzioa ematea eta inpresio onarekin bukatzea oso garrantzitsua da. Zuen esperientzia pertsonalak ere aprobetxa ditzakezue. Bestalde, partaide bakoitzak gaitasun ezberdinak dituzenez, horietaz baliatu zaitezke aurkezpena prestatzeko garaian.
 - Bukatzeko, aurkezpenaz gozatu!
- Talde bakoitzak **15 minutu** izango ditu beren proposamena aurkezteko eta kideekin solasean aritzeko. Aurkezpen bakoitza amaitzean, beste taldeen txanda izango da, horrela talde guztiek aurkezpena egin arte.
 - Aurkezpen saioetara ikasle guztiak etorri beharko dira.
 - Beste taldeek aurkeztu duten proposamena ebaluatuko dute bertaratu diren gainerako ikaskideek.

6. KRONOGRAMA

Lan idatzia **abenduaren 18an**, asteazkenean, entregatuko zaio tutoreari (inprimaturik; koadernatu gabe; gratatuta), eguerdiko 13:00ak baino lehen (tutorea bulegoan egon ezean, haren postontzian utzi).

Modulu lana ondoko kronogramari jarraiki gauzatuko da:

Astea	Data	Zeregina	Nork/Nori/Norekin
1. astea	Irailak 9	Txostena aurkeztu eta zalantzak argitu	KGII irakasgaiko saio praktikoetan
1. astea	Irailak 13	Talde fitxa eman (abizenak alfabetikoki ordenatu fitxan)	Moduluko koordinatzaileari (postontzian utzi), 11:00ak baino lehen.
2. astea	Irailak 16-20	Lanaren alderdi teorikoa lantzeko eskola orduak	KGII
3. astea	Irailak 23-27 bitarte		Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan
4. astea	Irailak 30-4 bitarte		Hautzaroaren psikologia
5. astea	Urriak 7-11 bitarte		Ikastetxearen antolakuntza
5. astea	Urriaren 11		Lanaren lehen emangarria eman

11. astea	Azaroaren 18-22 bitarte	Lanaren 1. emangarriaren feedbacka eman ikasleei	Tutoreek, gelan bertan
11. astea	Azaroaren 18-22 bitarte	Lana aurreratzeko eskola orduak (aurkezpenen errebisioa)	KGII gaitasuna
12. astea	Azaroaren 25-29 bitarte		Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan
13. astea	Abenduak 2-4 bitarte		Haurtzaroaren psikologia
14. astea	Abenduaren 9-13 bitarte		Ikastetxearen antolakuntza
14. astea	Abenduaren 9-13 bitarte		KGII: aurkezpenak prestatzeko saiok
15. astea	Abenduak 16 eta 17	Aurkezpen egunak	GA1 taldeak 16an; GA2 taldeak, 17an
15. astea	Abenduak 18	Lan idatzia eman	Tutoreari, 13:00ak baino lehen.

7. EBALUAZIOA

7.1. EBALUAZIO OINARRIAK

- Lan idatzi bakoitza bi irakaslek ebaluatuko dute.
- Irakasgai guztiek 1,2 ECTS kreditu eskainiko dizkiote modulu lanari¹.
- Irakasgai guztiek moduluko lanari emango dioten balioa % 20koa izango da, salbu eta Komunikazio Gaitasunaren Garapena –Euskara eta Gaztelania– Haur Hezkuntza-II irakasgaietan; azken horretan % 15koa izango da.
- Irakasgai guztien ikuspegiak kontuan izanik baloratuko da modulu lana.
- Irakasgai guztietan lana gauzatzeko prozesuak 0,2 puntu balioko ditu, talde bakoitzak egingo duen aurkezpenak 0,6 puntu eta lan idatziak 1,2 puntu. Komunikazio Gaitasunaren Garapena –Euskara eta Gaztelania– II irakasgaietan ordea, lana gauzatzeko prozesuak 0,2 puntu balioko ditu, talde bakoitzak egingo duen aurkezpenak 0,45 eta lan idatziak 0,85.
- Moduluko atal guztiak gainditu behar dira moduluko lana gainditzeko.
- Beharrezkoa da modulu lana gainditzea ikasgaiak gainditu ahal izateko.

7.2. EBALUAZIO ERRUBRIKAK

Ondorengoak dira moduluko lana ebaluatzeko erabiliko diren errubrikak:

¹ Kreditu ECTS bakoitzeko 10 ordu aurrez aurrekoak dira eta 15, ez aurrez aurrekoak.

PROZESUA	Bikaina	Ona	Hobetzekoa
4. KOMPETENTZIA: Lan prozesuan taldearen funtzionamendua arduraz kudeatzea (talde lana planifikatu, egin beharreko lanak osatu eta epean entregatu, lanaren aurkezpenetan kide guztiek parte hartu, talde lanaren errubrika bete, eta abar).			
Talde lana ongi kudeatu dute (2.go Eranskineko errubrikaren arabera).	Errubrikan lortutako emaitza 3,5etik gorakoa taldekide guztiek.	Errubrikan lortutako emaitza 3tik gorakoa, taldekide batek izan ezik.	Errubrikan taldekideen erdiek baino gehiagok < 2,5 puntu.
Egin beharreko lanak epe barruan entregatu dituzte (lanaren bi emangarriak eta zirriborroak egoki burutu dira, eskatzen diren betekizunak izanik).	Emangarri guztiak (1. zirriborroa eta azken lana) garaiz entregatu dira, eta biek dituzte eskatutako atal guztiak.	Emangarri bat epean entregatu da, eta eskatutako atal guztiak txertatu dituzte, kasu batean izan ezik.	Emangarriak ez dira epean entregatu, eta eskatutako atal bat baino gehiago falta dira.
LAN IDATZIA	Bikaina	Ona	Hobetzekoa
1. KOMPETENTZIA: Taldean informazioa bilatu jolasari buruz, informazio iturri fidagarri eta anitzetan oinarrituz (liburuak, aldizkari akademikoak, web orriak).			
Modulu-lanerako irakasleek proposatutako oinarritzko materialaz gain, datu-base akademikoetako gutxienez 6 iturri erabili dira atal teorikorako.	6 iturri berri edo gehiago erabili dira, guztiak egile esanguratsuenak, atalkako helburu eta gaiei modu koherentean erantzuteko erabiliak.	6 iturri esanguratsu berri baino gutxiago erabiltzen dira edo, erabiltzen badira ere, ez dira testuaren beharretara (ez daude testuan	2 iturri esanguratsu berri baino gutxiago erabili dira eta ez diote testuari nahikoa ekarpenik egiten.

		koherentziaz txertatuak, ez diote atalaren helburuari/gaiari erantzuten...) egokitzen.	
Informazio iturri eguneratuetan oinarritzen dute lana.	6 iturri berrietatik lau iturri 2012tik aurrera idatzitako lanak dira.	2-4 iturri berriak dira 2012 urtetik aurrerakoak.	Iturri berriak 2012tik aurrerakoak dira.
Informazio iturri zientifikoetan oinarritzen dute lana.	Aurkitutako iturriak zientifikoak dira.	Aurkitutako iturriak zientifikoak dira bi izan ezik	Aurkitutako iturriak ez dira zientifikoak (artikulu akademikoak, liburuak...)
Landutako iturri zientifiko guztiekin lanketa burutu da.	Iturri guztiak landuak izan dira	Iturrien erdiek azaleko informazioa azaltzen dute	Iturri gutxi batzuk baino ez dira sakondu
2. KOMPETENTZIA: Atal teorikoan oinarrituz, hauren jolasari buruzko behaketaren deskribapena eta analisi zehatza burutzea diziplinartekotasuna kontuan izanik.			
Behaketa tresnan jasotako informazioa xehea eta osatua da.	Taldekide guztiek zehaztasunez jaso dute informazioa, taulan adibide zehatzak jasoz, "Behaketaren ondorio eta gertaera esanguratsuenak" atala ere betez.	Taldekide batek edo bik zehaztasun eza islatzen dute tauletan, itemetan bai/ez adieraziz azpiataletarik erdietan.	Taldekide erdiek baino gehiagok zehaztasun eza azaltzen dute tauletan, itemetan bai/ez adieraziz azpiatal gehienetan.
Lanaren emaitzen atalean behaketen arteko alderaketa egokia egin da, kategoria bakoitzean.	Ikaskideen arteko alderaketak argiak dira azpi atal guztietan, kasu horietan zehaztuaz adierazten delarik zeinen artekoak diren desberdintasunak.	Ikaskideen arteko alderaketak lausoak dira 2 > azpiataletan, eta ez dira desberdintasunak deskribatu.	Ikaskideen arteko alderaketak ez dira garbiak 4-5 azpiataletan, eta ez dira desberdintasunak deskribatu. Deskribapenak orokorrekiak dira.

<p>3. KONPETENTZIA: Jolasen garrantzia hauren hezkuntzan eta garapenean ezagutu eta balioetsi nahiz hobekuntzak proposatzea taldean, eremu teorikotik eta behaketetatik jasotako irizpideen arabera.</p>			
<p>Behaketa tresnaren bost azpiatalak ondorioetan argi bereizten dira eta beren arteko lotura zuzena da.</p>	<p>Azpiatal guztiak daude eta lotura logikoak agertzen dira.</p>	<p>Azpiatalen bat falta da edo logikarik gabeko loturaren bat dago.</p>	<p>1 > azpiatal falta dira.</p>
<p>Behaketa tresnaren bost azpiatalen ondorioak atal teorikoko ekarpenekin uztartu dira.</p>	<p>Azpiatal bakoitzeko autoreak eta behaketako analisia uztartzen dituzte.</p>	<p>Azpiatalakako autoreak eta behaketatikoko analisia ez dira aukera dagoen guztietan uztartzen.</p>	<p>1 > azpiatal autoreak eta behaketako analisia ez dituzte uztartzen.</p>
<p>Hobekuntza proposamenak egin dira.</p>	<p>Baldintzak hobetzeko balio luketen hiru proposamen egin dira, gutxienez, behaketa tresnan deskribatuari lotuak.</p>	<p>Baldintzak hobetzeko balio luketen 1-2 proposamen egin dira, behaketa tresnan deskribatuari lotuak.</p>	<p>Ez da proposamenik egin edo egin direnek ez diote behaketa tresnan islatuari erantzuten.</p>
<p>Lanari buruzko hausnarketa orokorra burutu da.</p>	<p>Gutxienez 3 ideiatan oinarrituriko hausnarketa burutu da, jolasaren baldintzen inguruko gakoak jasotzen dituena.</p>	<p>1-2 ideiatan oinarrituriko hausnarketa burutu da, jolasaren baldintzen inguruko gakoak jasotzen dituena.</p>	<p>Ez da hausnarketarik burutu edo ez dituzte jolasaren baldintzen inguruko gakoak jasotzen.</p>
<p>5. KONPETENTZIA: Jolasei buruzko diziplinarteko idazlanak aurreikuspenez planifikatu (lanaren zirriborroak) eta azken txostena egin testuaren zuzentasuna, egokitasuna, antolaketa eta APA arauen irizpideak kontuan izanik.</p>			
<p>Testuaren koherentzia</p>	<p>Testua koherentea da bere osotasunean. Paragrafo bakoitzak ideia batean sakontzen du eta ideien antolaketa logikoa da. Ideien mailakatzea egokia da, nagusienetik menpekoetara; errepikapenak eta adibideak ez</p>	<p>Ez zaio koherentziari eusten testu osoan zehar. Paragrafoetan, zenbaitetan, lotura gabeziak agertzen dira. Ideien arteko mailakatzeari ez zaio beti eusten. Ez da beti asmatzen</p>	<p>Koherentzia arazoak sumatzen dira testu osoan zehar: ideien mailakatzea eta deskribapena ez dira garbiak, eta horrek testuaren ulergarritasunari eragiten dio. Nahasmen</p>

	daude soberan, ideien osagarri eta argigarri dira. Idazkerak irakurlea ongi gidatzen du testuan zehar.	ideiak argitzeko hautatutako baliabideekin, kasuren batzuetan: alferrikako errepikapenak daude eta adibideak ez dira argigarriak, zehazgabeak baizik.	horren eraginez, askotan, kontzeptuak lekuz kanpo daude eta ez datoz bat atalen izenburuekin. Beharrezkoak ez diren errepikapen asko daude.
Testuaren kohesioa	Ideiak lotzeko lokailuak eta testuari kohesioa emateko testu antolatzaileak ondo erabiltzen dira, aberastasunez.	Zenbaitetan ideiak lotzeko eta testua antolatzeko lokailuen gabezia sumatzen da; kasuren batean gaizki hautaturiko edo saihestu daitezkeen lokailu errepikatuak erabiltzen dira.	Ideiak lotzeko lokailuak eta testu antolatzaileak errepikatzen dira, zenbaitetan desegokiak direlarik. Horrek testuaren ulergarritasunari eragiten dio.
APA 7. argitaraldiko arauak jarraitzen dira.	Iturri guztietan eta bibliografian ondo zitatuta daude.	Iturrietan eta bibliografian akats arinak daude noizbehinka (adibidez, etzana ez erabiltzea, izena jartzea,..)	Iturri erdietan eta bibliografian akats sistematikoak daude.
Testuaren egokitasuna: dagokion erregistroan egin da lana, irakurterraza da eta haurtzaroko hezkuntzari dagokion hiztegia erabiltzen dute. Testua erabilera inklusioari begira zuzena da.	Euskara batu egokian eta erregistro jaso erabili eta hiztegi inklusiboa erabili da (terminologia eguneratua).	Akats gutxi batzuk tartekatu dira, eta hiztegia ez da beti inklusiboa eta eguneratua.	Akats gramatikal sistematikoak daude eta teknizismoak ez dira erabiltzen edo desegoki erabiltzen dira (terminologia eguneraketarik ez dago). Hiztegia ez da inklusiboa.
AURKEZPENA	Bikaina	Ona	Hobetzekoa

<p>6. KONPETENTZIA: Sormenez adieraztea Haur Hezkuntzan jolasaren baldintza aproposak sustatzeko proposamen egokiak.</p>			
<p>Aurkezpena ebidentzia zientifikoan oinarritu da.</p>	<p>4-5 iturri zientifiko erabiltzen dituzte euren argudioak justifikatzeko. Gaia menperatzen dute.</p>	<p>Gutxienez 2 iturri zientifiko erabiltzen dituzte euren argudioak justifikatzeko. Gaia menperatzen dute nahiz eta akatsen bat egin.</p>	<p>Ez dute iturri zientifikorik erabiltzen euren argudioak justifikatzeko. Gaia ez dute menperatzen.</p>
<p>Ahozko deskribapen argiak eta arinak eman dituzte.</p>	<p>Diskurtsoa argia eta zuzena da, ongi antolatua eta pausaldi egokiekin hornitua, hizkuntza maila altua erakutsiaz. Hasieratik bukaerara arte lortzen dute publikoaren arretari eustea.</p>	<p>Diskurtsoa ulergarria eta zuzena da, gehienetan; geldialdiak egoki egiten dituzte, normalki. Hizkuntza maila egokia da, gehienetan.</p>	<p>Diskurtsoa ez da argia, kohesio eta koherentzia falta zaio; zuzentasun arazoak dituzte eta ez dituzte geldialdiak egoki egiten. Hizkuntza maila baxua da.</p>
<p>Ahozkoa ez den komunikazioa eraginkorra da (publikoaren arreta lortu dute).</p>	<p>Gorputz eta aurpegi adierazpena egokia dute; mugimenduak eta keinuak ahozko diskurtsoarekin bat etortzeaz gain, adierazgarritasuna ematen diote edukiari.</p>	<p>Gorputz eta aurpegi adierazpena, mugimenduak eta keinuak egokiak dira, gehienetan; zenbaitetan ahozko eta ahozkoa ez den adierazpena ez datoz bat.</p>	<p>Gorputz eta aurpegi adierazpena, mugimenduak eta keinuak ez dira egokiak; ahozkoa ez den komunikazioak ez du lortzen publikoaren arreta hartzerik.</p>
<p>Aurkezpena berritzailea eta sormen handikoa da.</p>	<p>Proposamenaren planteamendua eta gauzapena originalak dira, helburuari koherenteki eusten dion aurkezpen berritzailea egiten delarik.</p>	<p>Proposamenaren planteamendua edo gauzapena originalak badira ere, sormenaren gauzapena erdizkakoa da. Originalitateak, hein batean, helburua lausotu edo desitxuratu du.</p>	<p>Ez da proposamen berritzaile eta originala; aurkezpen laua da, gauzapenean ekarpenik egiten ez duena.</p>

Beste ikasleen ebaluazioa			
---------------------------	--	--	--

7.3. LANA GAINDITZEKO GUTXIENAKOAK

- Atal guztiak agertzea, landurik.
- Oinarrizko bibliografia egotea + 6 autore egotea.
- Autore guztiak bibliografian egotea.
- Hizkuntzaren zuzentasuna: akats gramatikal larriak (ergatiboa, h-a falta, komunztadura...). Hizkuntza zuzentzailea erabili.
- Diskurtoaren kohesioa eta koherentzia: ideiak ez direnean ulertzen (errepikapenak daudenean, lotura gabea, ideia batetik bestera saltoak..)
- Plagioa ez da onartzen.
- Ikasleen datuak beti anonimoak izango dira.
- Aurkezpenean kide guztiek parte hartu behar dute modu orekatuan.

8. ERANSKINAK

1. Eranskina: Haurra behatzeko taldekide bakoitzak erabilitako tresna, lortutako emaitzekin
2. Eranskina: Aurkezpena prestatzeko kasua
3. Eranskina: Talde lanaren ebaluazio errubrika
4. Eranskina: Moduluko lana ebaluatzeko galderak
5. Eranskina: Ikastetxeetan behaketa egiteko baimenak

1. Eranskina: Haurra behatzeko taldekide bakoitzak erabilitako tresna, lortutako emaitzekin

Ikus 7.2. atala.

2. Eranskina: Aurkezpena prestatzeko kasua



SUPERJOLASIUS NAIZ ETA BEHAR ZAITUZTET!!

Kaixo! SUPERJOLASIUS nauzue!! Tonucci planetan jaiotzen nintzen. Hori dela eta, Tonucci-arra naiz.

Zuetako batzuk elkar ezagutzen dugu. Nire aldetik, zuek guztiak ongi ezagutzen zaituztet. Txikiak zinetenetik ezagutzen ginen eta oraindik ere zuekin bolada polittak pasatzen ditut zuek jolasean zaudetenean zuek antzeman ez arren. Badaezpada ere eta baten batek ez badaki, oso boteretsua naizela adieraziko dizuet. Boteretsuen artean, boteretsuena. POWER-RA DUTENEN ARTEAN TOP TEN-a!

“Los cuatro fantásticos”, Catwoman, Batman, Supergirl, Linterna berdea, Wonder neska, Thor eta bere mailua, Hulk, Superman, eta koadrila guzti hori..., EZ existitzeaz gain, ezin dira inolaz ere nirekin alderatu. SuperLópez eta Amerika Kapitainari buruz hobe hitzik ere ez egitea ...

Nire botereak zeintzuk diren jakin nahi al duzue? Asko eta era askotarikoak dira! Liluragarriak benetan!

Izan ere, jakin behar duzuen lehenengo gauza, zuen eskola guztietako ikasle guztiak (salbuespenik gabe) niregan pentsatzen dutela egunero. Bere pentsamenduetan bizitzeaz aparte, “dei-efektu” BESTIALA dut.

Jakin behar duzuen bigarren datu garrantzitsua EXISTITZEN NAIZela da. Eta hirugarrenoa ONA naizela.

Tonucciarra naizen moduan, nire superboteak ondorengoak dira:

- Gauzak ongi badoaz eta haizeak nire alde jotzen badu, (Haizea ere oso boteretsua da eta), munduko haur guztiak nirekin egote hutsarekin, AUTOMATIKOKI ZORIONTSUAK bihurtzen dira. Mola, baietz?
- ARRETA MANTENTZEKO SUPERBOTEREA dut: zentzumen guztiak topera jarritz gero, zuen umeen superboteak pizten ditut. Gaitasun sinestezinak beraien burmuinetan nahiz gorputzetan sustatzen ditut: SUPERJAKINMINA, SUPEREXPLORAZIOA, SORMENA, NATURAFILIA, LAGUNTASUN KOSMIKOA, SUPERABIADURA, SUPERKOORDINAZIOA, KOMUNIKAZIO ATOMIKOA, OREKA MUNDIALA, SUPERERLAXAZIOA, DISFRUTATION INFINITUA ETA HARATAG0... Eta hamaika abilezia niregana etortzen diren haurrengan.
- Guzti hau gutxi balitz, garunak konektatzeko ahalmena dut, banakako botereak biderkatuz amankomuna den supersarea sortuz. Hau bai dela botere munduaren harri filosofala! Nire ondoan, Spiderman superheroi kutre xamarra dela deritzot. Ez duzue uste?

Honetaz gain, sinestezina dirudien arren, laguntasun-sareak sortzen ditut, “Supergaiztoen” kontra borrokatzeko: ASPERKERIA, UNIFORMATOR, ERASOTZAILATOR, AUTORITARISMOA..., eta edozein supergaizto nire lurra zapaltzera ausartzen dena ...

Nire aurkezpena egin eta gero, orain dator BERRI TXARRA ...
Krisialdian nago. Oso krisialdi larrian. Batzuek ez dute niregan sinisten edo nire superboteak ulertzen. Hala ere, zuetako askok asko lagundu didazue. Oraingo honetan, laguntza bila natorkizue berriz. Super-ahalmenen munduarekin harremana izan duzuenok, **BOTERE BAKOITZAK AHULTASUNEN BAT ERE DAKARRELA** jakin badakizue (Beste batzuek erantzukizuna ere dakarrela diote).
Nire kasuan, gaixorik nago. **ZEMENTOFOBIA LARRIAK** jota nago, baita ere **MENDIFITXAFOBIAZ**, **DENBORAFALTATITIS**, eta abar luze bat... Zuen laguntza behar dut. Ahul nago. Oraintxe, boterea zuen eskutan dago. Nire indarra berreskuratzeko, zuen menpe nago. Eta hauxe da eskatzen dizuedana:

- ZUEN AHALMEN GUZTIAK MARTXAN JARTZEA NIRE BOTEREAK ZEINTZUK DIREN JAKITEKO, BAITA IKASLE GUZTIEN GAITASUNAK AGERIAN UZTEKO ERE.
- IKASKUNTZARAKO DISEINU UNIBERTSALA KONTUAN HARTUZ NIREKIN ERLAZIONATZEKO ESKOLAK ZIURTATU BEHAR DITUEN BALDINTZA HOBERENAK ZEINTZUK DIREN ULERTU ETA MARTXAN JARTZEA.
- BIDELAGUN HOBERENAK BILAKATZEA ZUEN IKASLEEK ERABIL DITZATEN JOLASTEKO SUPERBOTERE GUZTIAK.

HORIEK KONTUAN HARTZEN DITUEN PROPOSAMENAK 3-4 IDEIA IZAN BEHAR DITU SUPERJOLASIU SALBATZEKO!

**Badakit ez didazuela hutsik egingo! Eskerrik asko!
ABENTURAK AURRERA JARRAITZEN DU!!!**



3. Eranskina: Talde lanaren ebaluazio errubrika

TALDE LANA VERSUS LANTALDEA/ELKARLANA: EBALUATZEKO ERRUBRIKA² (1)
(BALORAZIOA: 1: ESKAS; 2: HOBETU BEHAR; 3: OSO ONGI; 4: BIKAIN)

IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	AUTO E Izena	Lank. 1 Izena	Lank. 2 Izena	Lank. 3 Izena	Lank. 4 Izena
EKARPENAK eta PARTAIDETZA	Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da. Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak. Besteei eskatzen dizkie ideiak eta iritziak eta saiatzen da hauek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. Ezagutza sakontzeko besteei ideien argudioak eskatzen dizkie. Ulertzen ez duenean galdetzen die lankideei, eta azalpena berak baldin badaki lankideei eskaintzen die.					
JARRERAK	Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du, Besteen partaidetza bultzatzen du. Lankideei laguntza ematen die eta beren merituen aitortzen ditu. Ideiak kritikatzeko, ez pertsonak. Talde kohesioa mantentzen saiatzen da eta lankideen gogoaldarteak kontuan hartzen saiatzen da. Zailtasun aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak.					
ERANTZUKIZUNA	Adostutako arauak betetzen ditu. Bere lanak adostutako epeetan ematen ditu. Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazio. Lana eman baino lehen orraztu egiten du. Hartutako konpromisoak betetzen ditu.					
AGERTZE eta PUNTUALTASUNA	Bilera guztietara agertzen da. Bileretara garaiz agertzen da eta bukaera arte ez du alde egiten. Kaleren bat egiten badu edo berandu ailegatzen bada ongi justifikatzen du.					
GATAZKEN KONPONKETA	Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen. Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak. Saiatzen da beste aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen. Tentsioak bideratzen saiatzen da. Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du.					

² Egokitua. Iturriak: Johnson, D.W eta Johson, R.T. (2014): *La evaluación en el aprendizaje cooperativo*. Espainia, Edit. SM. Chica Merino, E. (2011). Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica. *Escuela Abierta*, 14, 67-81.

TALDEA EBALUATZEKO ERREGISTRO ORRIA
BALORAZIO TAULEN LABURPENA

IZEN ABIZENAK	1.	2.	3.	4.	5.
EKARPENAK ETA PARTAIDETZA					
JARRERA					
ERANTZUKIZUNA					
AGERTZE ETA PUNTUALTASUNA					
GATAZKEN KONPONKETA					
GUZTIRA					

4. Eranskina: Moduluko lana ebaluatzeko galderak

1. Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu dituzuela uste al duzue? (Moduluko konpetentziak DILAN txostenean topatuko dituzue) Zein izan da lan honetako ekarpen nagusia?
2. Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
3. Nolakoa izan da zuen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzetan onurarik atera al duzue?...).
4. Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
5. Beste lan mota bat egitea proposatuko al zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko al zenuke? Zeintzuk?

5. Eranskina: Ikastetxeetan behaketa egiteko baimenak

Donostian, irailaren 30ean

2022.09.30

Irakasle estimatua,

Zurekin jartzen gara harremanetan EHUko Haur Hezkuntzako Graduan bigarren mailan gauzatzen ari garen Komunikazio Gaitasunak Moduluko Lanaren berri emateko. Lan honen helburua da 2. Mailako ikasleek Haur Hezkuntzako eskola batean jolasaren inguruko behaketa eta gogoeta bideratzea.

Lan horretarako, ikasleek 5 egunez **jolasaren inguruko behaketa aktiboa** egin beharko dute eskola batean, eta, zehazki, **behaketa tresna** baten laguntzaz gauzatuko dute behaketa hori. XXXX ikasleak, zuen eskolan egiteko borondatea azaldu du. Gure eskakizuna izango litzateke, beraz, 5 egunetan zehar Haur Hezkuntzako (0- 6 urte) gela batean tutorearen ondoan egoteko aukera eskaintzea ikasle honi, behaketa egin ahal izateko. Era berean, tutoreari jolasaren inguruan duen iritzia eskatuko lioke, izan ere, uste dugu tutorearen ikuspegiak ikaslearen lana aberasteko balioko duela.

Aipatu tresnan bilduko diren **datuak guztiz anonimoak** izango dira: **ez da ikaslerik identifikatzeko modukoak diren inolako daturik emango.**

Espero dugu baldintzak izatea gure ikaslea artatzeko. Hala balitz, zinez eskertuak egongo ginateke. Zeinahi zalantzarik baduzue, ez zalantzarik izan eta jar zaitez gurekin harremanetan.

Mila esker,

Komunikazio Gaitasunak Moduluko Lanean
parte hartzen dugun irakasleok

Ana Gandara

Marta Sarasa

Barbara Presa

Nahia Intxausti



XXXX , NAN zenbakia duenak eta XXX ikastetxeko irakasleak

ZIURTATZEN DU

XXXX ikasleak, NAN zenbakidunak 5 egunez **jolasaren inguruko behaketa aktiboa** egin duela eskola honetan, eta, zehazki, **behaketa tresna** baten laguntzaz gauzatuko duela behaketa hori Haur Hezkuntzako (0- 6 urte) gela batean, zehazki, XX urteko gelan.

Dagozkion ondorioak izan ditzan,

Donostian, 2022ko urriaren XX an

